

ek!

eta kitto!
euskara elkarteak

2022ko irailak 16 · 1239 zenbakia



JUBILATUTA ERE XABI BETI APAIZ

2022-2023 IKASTURTEA **MATRIKULA ZABALIK**

Irailaren 30era arte

- Ordu-tegi eta erritmo malguak
- Tarifa bereziak
- %20, %50 eta %75eko deskontua



Eibarko Udal
Euskaltegia



PORTALEA - Bista Eder, 10 943 70 09 12 euskaltegia@elbar.eus



LEHIAKETA

05. EDIZIOA

PARTE HARTU

SARIA **01**

EKOAKTIBITEA

Murgildu eta gozatu aukera-itsaso batean **150€**

SARIA **02**

"SIN PLÁSTICO" BONOA

Plastikorik gabeko bizitza bizitzeko dena **120€**

SARIA **03**

"EKOMODO" BONOA

Diseinuzko osagarriak eta jasagarriak zure egunerokotasunerako **70€**



BIDALI ZURE LANA 2022KO URRIAREN 1A BAINO LEHEN
LEHIAKETAEGOIZIA@GMAIL.COM HELBIDERA.



AMICIZIAZAKA

ELKANO

UNIBERTZAIEM



Udala
Pasa Abendu



Sagardo Eguna...

ZOZKETA BEREZIA

LUXUZKO ASTEBURUA BILBON
(URRIAK 22-23)

Afaria El Viejo Zortzi-n

Gaua + gosaria Carlton hotelean
Bazkaria Bistro Guggenheim-en

RIFAK DATORREN ASTETIK AURRERA SALGAI (1€)

URRIAK 1
ZAPATUA

Egun osoko
jaia Untzagan!



...badator!

Jarraitu gaitzazu!



Aro berria hastear da San Andres elizan. 17 urtez bertako parrokoa izan den Xabier Zubizarretak jubilazioa hartuko du eta Eibarren jaio baina Soraluzen bizi izan den Pedro Laskuraini emango dio lekukoa. "Dena dela, ez dut abitua eskegiko", diosku Xabik, apaiza izateari inoiz ez zaiolako lagatzen, eta hurbil izango dugula iradoki digu, urte hauetan zehar Eibarrekin sortutako lotura estua ezin delako egun batetik bestera hautsi.

Udako oporrak atzean lagata, hasi da ikasturte berria Eibarko ikastetxeetan.

@etakitto



etakitto.eus



ARGITARATZAILA
...eta kitto! Euskara Elkarte

HELBIDEA
Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK
943 20 67 76 / 943 20 09 18
603 598 285

FAXA 943 20 28 72
ASTEKARIAREN E-MAILAK
erredakzioa@etakitto.eus
komunikabideak@etakitto.eus
publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK
elkarte@etakitto.eus
normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA
Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA
Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA
Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA
Silbia Hernandez

DISEINUA
Maku Oruezabal

MAKETAZIOA
...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA
Maider Aranberri

PUBLIZITATEA
Belen Ulazia

TELEFONOA
943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA
Ekhi Belar

BANAKETA-ARDURA
Idoia Labado

TIRADA
7.800 ale

INPRIMATEGIA
GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A
...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA
SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



“Sortzen ditugun hondakinak jaso egiten ditugu”

Aurreko alean ...eta kitto! astekariak erreportajea eskaini zion Arrateko Tiro Pitxoiari. Bertan, Miguel Tudancak horrela zioen: “Sortzen ditugun hondakinak jaso egiten ditugu, zorrotzak gara horretan”.

Aurpegi gogorra izan behar da halakorik esateko. Tiro azpian dauden lur-sailetan eta bideetan zenbat helize zati eta zenbat plater eta plater zati dauden ikusteko paseo txiki bat besterik ez da behar. Beno, bai, giroa eguzkitsua izan arren, perdigoien txaparradaz babesteko aterkia eramatea komeni da.

70 urte inguru daramatza bertan eta, oker ez banago, urtero 800.000 kartutxo inguru tiro egiten dira, 23 gramo kartutxo bakoitzeko... 1.000 tona berun baino gehiago sakabanatuta Arrateballeko basoari bizirik eusteko. Ea taldean dituzten “ingurugiroan adituek” perdigoiz guztiak jasotzeko gai diren.

Oharra: Beruna metal astun kutsagarria da, ez-biodegradagarria eta ingurumenean iraunkorra. Bere bioerabilgarritasun handiak izaki bizidun guztientzat arriskua dakar. Giza gorputzeko ia organo eta sistema guztietan eragiteko gai da.

Julian Fernandez

Astean esanak



Hondarribiko konpainia mistoak, edonola ere, badu tradizioa. 1940an sortu zen konpainia mistoaz ari naiz, `udatiarren konpainia´ izenez ezagunagoa den horretaz, alegia. Hondarribi eta Irungo zenbait lagunek eta udatiar batzuek sortu zuten eta betiko alarde ustez ukiezinak betikoa izateari utzi zion. Baina hango gauzak ulertzeko bertakoa izan behar omen da. Baztango mutil-dantzaren, Lekeitio-koxarrankaren, Gasteizko blusen inguruan izandako aldaketak ulertzeko ere leku horietakoa izan beharra dago? Baztanen, Lekeitio eta Gasteizen badago bere tradizioak egokitu ez izana ulertuko ez lukeen bertako jendea. Baita Hondarribian eta Irunen ere, jakina.

XABIER IZAGA, Gaur8ko erredaktorea

Garabiari deitzen diot edo diogu edo diote. Nolakoa den garajearen jabearen eramana edo tirania. Zerga edo udal pasabidea ordaintzen duelakotz dena libre balu bezala. Vadoa ez da leku elbarri bat, ez da espaloien Biblia, vadoak debekatuak behar lukete egon debekaziohuts direlako. Fragaren garaikoak dira kontuok eta la calle es mía, lunistiko irasagar denak bereak balira bezala. Ortu lehorra da vadoa. Autoa aurrean aparkatu, eta zer da? Munduaren akabera? Nire etxea defendituko dut? Vado batek urbanismoaren enpatia lehertzen du. Nik ez dut sekula autoa vado baten aurrean utzi, eta noizbait deskudaturik utziko banu, nagusiaren ga(le)rabetara makurtuko nintzateke, nola ez, mendiko labana hortzen artean dirdaitsu, santifikatu, abrahamzale.

KARLOS LINAZASORO, zutabegilea

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OJALIETAN EGON → Gauza bat hastapenetan egon. "Gure asmuak ojaliaetan dagoz ondiokan".

OJIA JIRURIK → Esan ohi da, gauza bat beste baten ordeztarabiltzen denean, antzerakoak direla diruditelako. "Olabek esaten eban moduan, ojia jirurik".



Idurre Iriondo

Farmaziak

- BARIXAKUA 16**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- ZAPATUA 17**
- EGUNEZ | Castaño** (J. Etxebarria, 7)
- DOMEKA 18**
- EGUNEZ | Lekunberri** (Isasi, 31)
- ASTELEHENA 19**
- EGUNEZ | Barandela** (Z. Agirre, 4)
- MARTITZENA 20**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- EGUAZTENA 21**
- EGUNEZ | Elortza** (J. Gisasola, 18)
- EGUENA 22**
- EGUNEZ | Mendinueta** (Urkizu, 6)
- BARIXAKUA 23**
- EGUNEZ | Azkue** (T. Etxebarria, 4)
- GAUEZ BETI**, 2022an,
Mendinueta (Urkizu, 6)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 20 15 25
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekueta	943 03 26 50
Errepideak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- **Lianka Lioniss Lengua Latorraca**. 44 urte. 2022-09-01.
- **Juan Felipe Arana Etxaburu**. 69 urte. 2022-09-01.
- **Fernando Bordas Mantecon**. 79 urte. 2022-09-02.
- **Ana Maria Gamazo Lopez**. 81 urte. 2022-09-03.
- **Alejo Martinez Sanchez**. 58 urte. 2022-09-04.
- **Josefa Arakistain Agirregabiria**. 89 urte. 2022-09-05.
- **Jose Maria Etxebarria Aranzabal**. 90 urte. 2022-09-06.
- **Esteban Okamika Dubowik**. 65 urte. 2022-09-06.
- **Jose Maria Fernandez Arizmendi**. 95 urte. 2022-09-08.
- **Salvador Sanchez Nuñez**. 73 urte. 2022-09-08.
- **Juan Manuel Arevalo Aizpuru**. 76 urte. 2022-09-09.
- **Juan Maria Apellaniz Pagola**. 92 urte. 2022-09-11.
- **Pedro Moreno Cervino**. 88 urte. 2022-09-12.
- **Purificacion Lopez Peral**. 97 urte. 2022-09-13.

Jaiotakoak

- **Neythan Gomez Duque**. 2022-08-30.
- **Akram Riau**. 2022-08-30.
- **Nur Ghacham-Emrani Ataghmassi**. 2022-09-04.
- **Gorka Zamakola Torre**. 2022-09-06.
- **Ziyad Amir El Bouadili**. 2022-09-06.
- **Aya Ennamousse**. 2022-09-11.



Bihar goizean bigarren eskuko bizikleta azoka egingo da Untzagan.

Herritarrak mugikortasun jasangarrira gerturatzeko kanpaina abiatu dute

Egitaraua gaur goizean hasi da, 'Ibilaldi osasuntsua' izeneko jarduerarekin. Bihar, berriz, bizikleten eta mugikortasun jasangarriarekin lotutako objektuen bigarren eskuko azoka egingo da. Untzaga plazan izango da 10:00etik 14:00etara bitartean. Bestalde, azokaren aldamenean, bizikletak konpontzeko tailerra egongo da martxan, Eibarko Klub Deportivoaren eskutik, eta bertan oinarritzko konponketak egiteko aukera eskainiko dute.

Horrekin batera, bihar (10:30etik 14:00etara eta 15:30etik 19:30era) eta domekan (10:30etik 14:00etara), Untzagan bertan, "Bizibideak, Gipuzkoako bizikleta-bideen sarea" izeneko informazio gunea jarriko da. Jar-

duera hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren "Gipuzkoako Itzulia" programaren baitan antolatu dute eta, Gipuzkoako bide berdeei eta bidegorriei buruzko informazioa jasotzeaz gain, bizikleta elektriko mota desberdinak probatu ahal izango dira bertan. Gainera, bihar haurrentzat eskulan tailerra egingo da, bizikleta-pieza birziklatuekin, eta bizikleta konpontzen ikaste-ko beste tailer bat ere eskainiko dute, publiko guztiarentzat. Domekan tailer mekanikoa egingo da bakarrik.

Bizikleta elektrikoa nola erabili
Eibarrerako antolatu duten egitarauaren barruan, aurten ere 'Nordic Walking Bataioa' egingo da. Eta eguaztenean, Eibarren bizikleta

Udalak, Ingurumen Sailaren bitartez, Mugikortasunaren Europako Astearekin bat egingo du aurten ere, 'Konbinatu eta mugitu' goiburuari jarraituta irailean zehar egingo diren hainbat jarduerekin. Ekimenak eibartarren artean mugikortasun jasangarriagoa bultzatu nahi du, garraio publikoa, bizikleta eta oinez ibiltzea bezalako bide jasangarriagoak erabiltzearen onurez herritarrak sentsibilizatuz.

elektrikoa nola erabili azaltzeko eta zalantzak argitzeko hitzaldia eman- go dute Klub Deportibokoek Errebal Plazan (A aretoan), 18:00etatik 19:30era. Euskaraz izango da eta izena emateko epea astelehenean amaituko da.

Irailaren 22a, berriz, 'Autorik Gabeko Eguna' izango da. Horregatik, eta garraio publikoaren erabilera sustatzeko asmoz, Udalbus zerbitzua doan izango da.

Amaitzeko, irailaren 24an (zapatua) Nordic Walking mendi martxa egingo da, 09:00etan Untzagatik abiatuta, eta jarraian Ibilixan-eko 10 kilometroko ibilbide bati ekingo zaio (izena emateko epea irailaren 21ean amaituko da). Egun horretarako, 10:30etik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara, Foru Aldundiak 'Prest jarri zure bizikleta' izeneko jarduera antolatu du.

Mugikortasunaren Asteko jardueretan parte hartzeko ezinbestekoa da aurretik izena ematea, 943 70 84 08 telefonora deituta edo Udalaren webgunean dagoen formularioa beteta.



Migrazioari buruzko hitzaldi-solasaldia antolatu dute eguenerako

“Migrazioa ez da delitua. Bizitzak salbatzea ez da delitua” izenburuko hitzaldia egingo da eguenean, irailaren 22an, 18:30ean Portalean (areto nagusian, 2. solairuan), Udaleko Gizartekintza sailak eta Eibar Zabalik Udaleko Aniztasun kulturala atalak antolatuta. Aita Mari ontziko, Mugarik Gabeko Medikua erakundeko eta Irungo Harrera Sareko ordezkariak hartuko dute parte mahai-inguru gisa planteatutako saioan eta moderatzailea Zehar-Errefuxiatuekin erakundeko kide bat izango da.



Udalak 2.000 euro bideratuko ditu Pakistanera, kaltetutakoei laguntzeko

Eibarko Udalak, Alkatetzaren proposamenez, 2.000 euro bideratuko ditu laguntza humanitario gisa, Pakistanen izaten ari diren uholdeek kaltetutakoei laguntzeko. Laguntza Gurutze Gorriaren bidez bideratuko da, erakunde hori ari baita kaltetutako biztanleria zibilarekin lanean. Azaldu dutenez, “Pakistan inoizko uholderik larrienak jasaten ari da, herrialdea krisi humanitario larrian murgilduta dago, eta Gobernuak kalamitate-egoera deklaratu du”.

Gurutze Gorriaren txosten baten arabera, orain arte 1.200 lagun baino gehiago hil dira, eta 33 milioi pakistandar baino gehiago ondorioak sufritzen ari dira. Gainera, milioi bat etxebizitzatik gora erabat suntsituta edo larri kaltetuta geratu dira, 800.000 abelburu baino gehiago galdu eta nekazaritzako ehunka mila hektarea lur suntsitu dira. Gainera, ur-hornidurako sistemen %30 inguru kaltetu dira eta, ondorioz, biztanleek ez daukate edateko urik.



Cristobal de Sugadi eskribauaren eskriturak erregistratzeko dirulaguntza Udalarentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuak dirulaguntzak eman dizkie Bergara, Eibar, Hernani eta Oñatiko 18 proiekturi, haien dokumentu-ondarea berreskuratzeko. Diru-laguntza horiek urtero ematen dira eta Gipuzkoako Artxibo Orokorrek kudeatzen ditu (AGG-GAO) eta irabazi asmorik gabeko erakundeei eta instituzioei zuzenduta daude. Oraingo honetan, adibidez, Eibarko Udalak,

Cristobal de Sugadi eskribauaren eskritura publikoak erregistratzeko (1600/1601) dirulaguntza eskatu du. Laguntza horiei esker, pergaminoan, paperean eta zeluloidean berrezarri dira dokumentuak; besteak beste, hiri-gutunak, udal-ordenantzak, akta-liburuak eta udal-kontuenak, auziak, testamentuak, protokoloak, erroldatze-liburuak, kartelak, hiri-planoak eta ontzienak.



Oporretako buelta arintzeko egun osorako egitaraua antolatu dute Amañan biharko

Amaña Es La Caña elkarteak eta Udalak antolatuta, “Welcome oporretan” izeneko a egingo da bihar eta, horrela, jatorriz eibartarra den, baina aspalditik Bartzelonan bizi den Aitor Echebarriaren Aitorpenak taldeak kontzertua eskainiko du Amañan, 21:00etatik aurrera. Bartzelonako solid pop taldeaz gain, The Pladoures eta The Jacintones taldeek ere joko dute.

Ez da eguneko ekintza bakarra izango, egitaraua goizean hasiko baita. Horrela, 11:00etan

umeentzat gaztelu puzgarria eta karts-ak egongo dira, eta musika jarriko dute auzoa girotzeko; 14:30ean herri-bazkaria egingo da; 16:00etan haurrentzako parkea jarriko dute; 17:00etan Bihar Taldeak txotxongilo ikuskizuna eskainiko du; 18:00etan txokolatada egongo da haurrentzat; 18:30ean patata-tortilla lehiaketa hasiko da (aitxitxa eta amamek euren ilobekin osatuko dituzte bikoteak); eta horren ondoren hasiko dira gaueko kontzertuak.

Euskalduntze kanpaina berezia abiatu dute euskaltegietan matrikulatzen direnentzat

Udalak, Udal Euskaltegiarekin eta AEKrekin lankidetzan, kolektibo estrategikoak euskalduntzeko baldintza bereziak eskaintzen ditu. Horrela, 12 urte artekoen gurasoek, 16 urte beteak dituzten ikasleek, langabetuek, merkatarari eta ostalariek eta 65 urte edo gehiagoko jubilatuek matrikularen prezioaren erdia bakarrik ordaindu beharko dute, Udal

Euskaltegian edo Eibarko AEKn matrikulatzen direnenan. Horretarako bete beharreko baldintzak Eibarren erroldatua egotea eta %85 edo gehiagoko asistentzia dira.

Interesatuak Udal Euskaltegian (943 700912 / euskaltegia@eibar.eus) edota AEKn (943 201 379 / eibar@ae.eus) eskatu dezakete informazio gehiago.

Hile osorako zine-bonua sortzeko proposamena egin du EH Bilduk

2023rako Tasa proposamenen barruan, hileko zine bonu bat sortzea proposatu du EH Bilduk. 12 euro balioko luke eta hilabeteko zine emanaldi guztietara joateko aukera emango luke. Asmoa “Coliseoko zinemako sarreraren prezioa merketzea, zine zaletasuna areagotzea, kultura sustatzea eta kulturaz gozatzeko eskubidea zabaltzea” da. Proposamenaren arabera, herritarrek interesatzen zaion hilabetean erosi ahalko luke bonua, hilabete horretako zine emanaldi guztiak ikusteko eta emanaldi bakoitzaren errentatik euro bat ordainduko luke. Coliseoaren Laguna txartela dutenentzat 10 euroko tarifa berezia sortzea ere planteatu dute. Gainera, ez litzateke bonu nominala izango, pertsona batek baino gehiagok erabili ahal izateko.



Ipuruako bolatokiaren kudeaketa enkantera

Eibarko Kantabriako Etxeko zuzendaritzak jakinarazi duenez, hilabete honetan zehar enkantera aterako dute elkarteak Ipuruan, autobidearen azpian, duen bolatokiaren kudeaketa. Norbaitek interesa izanez gero, 943 207 138 telefono zenbakira deituta emango dizkiote azalpen gehiago.

AUTUAN

1970ean JAIOTAKOEN JAIA

1970ean jaiotakoek urriaren 15ean ospatuko dute kintada. Joan nahi dutenek 100 euro ingre-satu beharko dituzte erreserba egiteko, Laboral Kutxako ES07 3035 0209 91 2090020522 kontu zenbakian (azken eguna irailaren 25a da).

1954an JAIOTAKOEN JAIA URRIAREN 29an

Unzaga Plazan elkartuko dira 13:00ean, zapiak banatu eta talde-argazkia ateratzeko. Jarraian aperitiboa hartuko dute Ongi-Etorrin eta Hotel Unzagara bueltatuko dira, 15:00etan bazkaltzeko. Kafearakin amaituta, DJ batek girotuko du jai, 19:00ak arte. Hortik Ongi-Etorrira bueltatuko dira, trago bat hartu eta, 21:15ak inguruan, Arkupera joango dira, zerbait jatera. Parte hartu nahi duenak 95 euro sartu beharko ditu Laboral Kutxako ES1430350023920231164715 kontu zenbakian, bertan izena jarri.



65 URTEKOEN OSPAKIZUNA

1957an jaiotakoek urriaren 8an ospatuko dute beraien jai, egun osorako egitarauarekin. Parte hartu nahi duenak urriaren 8ra arteko epea dauka izena emateko. Horretarako, 90 euro sartu beharko dituzte Laboral Kutxan, ES 72 3035 0235 2023 5103 8831 kontu zenbakian, izen-abizenak emanda. Egitaraua honakoa da: 13:00ean argazkia atera, 13:30ean piskolabisa Kontenten, 14:45ean bazkaria Casinon, 17:00etan guatekea eta 19:30ean jai amaiera, Ametsan.



Debarreneko pentsiodunek jardueraz betetako udazken beroa iragarri dute

Aurreko astelehenean iritsi ziren Eibarko Pentsiodunen Taldearen asteroko kontzentrazioak, 12:00etan Untzagan. Horrela, Debarreneko Pentsiodunen Mugimenduak denboraldi berri bati ekin dio bere aldarrikapenetan. Pentsiodunek esandakoaren arabera, “jardueraz betetako udazken beroa” dator. Astelehenero egiten diren ohiko elkarretaratzeez gain, urriaren 1ean Adinekoen Nazioarteko Eguna ospatuko da eta, horren harira, hainbat ekitaldi antolatuko dituzte eskualde mailan.

Eta, horrez gain, urriaren 15ean Madrilera martxa egingo da, talde parlamentarioei estatu osoan bildutako sinadurak aurkezteko. Zehazki, Euskal Herrian 70.000 sinadura bildu dituzte eta alderdi politikoei benetako KPIa defenda dezatela eta gutxienean pentsioa 1.080 eurokoa izan dadila eskatuko zaie. Gainera, udazkenari begira, pentsiodunak sindikatuekin eta gizarte-erakundeekin batera ari dira lanean, “pentsioen auziari erantzun irmoa emateko”. Diotenez, eros-ahalmena galtzen ari da.

Astelehenean hasi zuten kurtso berria Eibarko ikasle gehienek

Udako oporrak atzean lagata, hasi da ikasturte berria Eibarko ikasletxeetan. Astelehena izan zen lehen klase eguna ikasle gazteenentzat eta, ohikoa denez, poza eta urduritasuna nahastu ziren goizean goizetik, eskolara sartzeko orduan grabatutako irudietan ikus daitekeenez.



Bideoa ikusgai



Maitatua elizatik haratago

Aro berria hastear da San Andres eliza. 17 urtez bertako parrokoa izan den Xabier Zubizarreta jubilatuko egingo da eta Eibarren jaio baina Soraluzen bizi izan den Pedro Laskuraini emango dio lekukoa. “Dena dela, ez dut abitua eskegiko”, diosku Xabik, “apaiza izateari inoiz ez zaiolako lagatzen”, eta hurbil izango dugula iradoki digu, 25 urtetan zehar Eibarrekin sortutako lotura estua ezin delako egun batetik bestera hautsi.

Irailaren 25ean, 12:00etan, San Andres elizan egingo den meza ez da ohikoa izango, Xabier Zubizarretak bertan emango duen azken meza izango baita. Erretiratzeko ordua iritsi zaio Xabiri eta zeremonia apal baten bitartez Pedro Laskuraini emango dio lekukoa. “Gure administradore apostolikoa etorriko da, Fernando Perez Gonzalez (Iruñeako gotzaina dena), Laskurainekin batera, eta erreleboa emateko txanda iritsiko da”, azaldu digu.

Azken meza izanik, ezin ukatu Xabirentzat berezia izango dela, baina bizitzan beste kapitulu bat idazteko sasoia iritsi dela uste du. “Beste norbaiti txanda emateko ordua da, eta ona da gainera, herriak gure martxaren berri izan dezan”, diosku. Berak “lasai-lasai” emango du pausoa albo batera. “Etixeratu egingo naiz eta ahal den tokian zerbitzu apala eskainiko dut”, kontatu

digu apaltasunez. Izan ere, bere hutsunea asko nabarituko dute eliztarrek eta, egin dioten eskaera onartuz, zapatuetan eta domeketan zerbitzua eskaintzen jarraituko du urtebetez.

Xabier pertsona maitatua da herrian, eta ez bakarrik eliztarren inguruan. Abuztua aurretik zenbait omenaldi jaso ditu herriko elkarte batzuren eskutik eta, kalean asko dabilen gizona izanik, asko dira agurtu eta eskerrik beroena eskaintzen dioten lagunak. “Beste batzuek, ostera, ia oraindik jubilatuko ez naizen galdetzen didate”, diosku barrez. Serioago jarrita, zera diosku: “Jendearen esker ona jaso dut eta maitatua sentitu naiz, oso”.

San Pion lehenik

San Andres parrokia aipatu digu, baina Eibarren izan zuen lehen “etxea” San Pio eliza izan zen. Zortzi urte pasa zituen Ipuruan eta

“gustura” egon zela dio. San Andresera “jaistean” aldea igarri zuen, eliza baten eta bestearen jarduna ezberdina delako, baina alboan apaiz-lagun bikaina izan duela aitortu digu, “Don Antonio Beitia”. Gainera, herriko beste elizetan ibili diren apaizekin (Ismael Elizalde, hil zen Miguel Angel Basurco, karmeldarrak...) izandako harremana aldarrikatzen du. “Ondo babestuak izan gara, baina orain eskasia dago eta gauzak nahiko airean daude”, dio gazteen artean dagoen errelebo faltaren kezka.

Etorrizuneko kezka albo batera lagata eta atzera begira jarrita, Eibarrera etorri zen momentua gogoratzen du Xabik. “Nire lehen helburua Eibar ezagutzea izan zen”, kontatu digu. Horretarako, herrian murgildu zen. “Jende artean sartu nintzen”, diosku. San Pioko jardunak jendearekin egoteko eta berba egiteko aukera lagatzen zion, eta





Erretiroa hartu arren, apaiz zateari inoiz uzten ez zaiola esan digu Xabier Zubizarretak. EKHIBELAR

egoera ezberdina bazen ere (“ETA bizirik zegoen oraindik eta Guardia Zibilak San Pio parean nituen”), birkain egokitu zen auzora eta herrira.

San Andres parrokian, ostera, beste erritmo batean egin behar izan du lan. “Gertakizun gehiago daude eta horrek gehiago lotzen zaitu, baina oso ondo egon naiz hemen ere. Don Antonio Beitia diru-kontuez eta gauzak liburutara pasatzeaz arduratu da, eta alde horretatik lasai ibili naiz, indarrak beste gauza batzuetan jarri ahal izan ditut”, azaldu digu. “Urte batzuetan Aldatze ikastetxean ere ibili nintzen eskolak ematen, San Pion nengoenetik, eta esperientzia asko gustatu zitzaidan”, gehitzen du.

Gertuko apaiza

Xabiren esperientziak erakusten duen bezala, apaiz baten funtzioa ez da meza ematera mugatzen. “Pertsonak ezagutzea eta beraien bizitzatik jasotzea garrantzitsua

>>> "Etxeratu egingo naiz eta ahal den tokian zerbitzu apala eskainiko dut"

>>> "Jendeak ez du gogoko apaizaren bulegora joatea, nahiago du kalean gelditu eta dena delakoa kontatzea"

da. Jainkoarekin duten esperientzia jaso egin behar duzu, esaten dutena serio entzun, berba egin... Apaizak hiztunak garelara esaten digute eta egia da”, diosku barrez.

Kalean sarri ikusi dugu Xabi eta, hain zuzen ere, gertuko izatea izan da bere nahietako bat. “Jendeak ez du gogoko apaizaren bulegora joatea, nahiago du kalean gelditu eta dena delakoa kontatzea. Gero, beharrezkoa bada, beste egun baterako zita egiten duzu berarekin, baina lehen harremana egiteko

zabiltzan tokian harrapatzen zaitu jendeak. Horrela, jendeak badaki hor zaudela eta denok dute zer-bait esateko aukera”, azaldu digu. “Egon naizen toki guztietan hori izan da nire estiloa”.

Apaiza 24 orduz da apaiza, eta betirako, Xabik dioen bezala. “Ezkondu arren ere, betirako gara apaizak. Nire anaia apaiza izan zen, laga egin zuten, ezkondu egin zen eta semeak izan zituen, baina apaiza betirako da apaiz”, diosku. “Egunerokoari lotuta, bestetik, gauetan askotan



Guztira 25 urte egin ditu Xabier Zubizarretak Eibarren apaiz lanetan. EKHI BELAR

deitu izan didate. Adibidez, baten bat gaixorik egon eta ea ospitalera joango nintzatekeen esanez. Agian goizeko 03:00ak dira, baina joan beharra dago. ‘Juergan al zatoz?’, esaten zidaten”, dio barrez.

Aro berria

25 urtetan gauza asko aldatu dira herrian, gizartean eta baita elizan ere, eta Xabik aitortzen du gauzak ez direla orain mende laurden ziren bezalakoak. “Eliz kutsua nabarmen aldatu da herri honetan. Horrek gauza onak eta txarrak izan ditzake, baina pertsona bakoitzak bere barne-prozesua bizi du eta fedea aztertzen du. Batzuren fedea sakonagoa, ederragoa eta gizarteari gehiago lagunduko diona da, eta ez fedearen aurrean beldurra edukitzekoa. Bakoitzak Jainkoarekin duen esperientzia agertzen du, libre eta pozik”, apaizaren ustez.

Eibarren zenbait eliza daude eta, apaizak esan digunez, gehienek

>>> “Jendearen esker ona jaso dut eta maitatua sentitu naiz, oso”

elkarrekin egiten dute lan katekesi mailan. “Joxin Arregik jarri zuen martxan bide hori eta hortik jarraitu dugu”, azaldu digu. Gero, karmeldarrak daude eta baita Arrateko moja gazteak ere. “Moja bezala hezitzen ari dira, ez bildots bezala, eta ikusi beharko da nola egiten duten aurrera euren esperientzia erlijiosoan. Gaur egungo gazteak ez dira edozein modutan mugitzen diren ardiak. Etorkizunean ordena berri hauek zein funtzio

ematen duten ikusi behar da. Karmeldarren ordenatik irten dira eta beste izen batekin beste gauza bat nahi dute. Eta zergatik gertatzen da hau? Adibidez, komentu handietan jende zaharra dagoelako eta bertan egotera mugatzeak euren bokazioa urritzen duelako. Bestetik, Internet bitartez gazteak erakartzen ari dira. Hau guztia berria da niretzat eta ikusi beharko da ordena eta prozesu berri hauekin zer gertatzen den”, Xabiren berbetan.

Apaizgintzan ere aro berriak bizi direla dio. “Seminarioan sartzegatik ez zara apaiz egiten. Batzuk, adibidez, sartu eta bi urtera laga egiten dute, beste batzuk bai hartzen dute bide hau... Gazte mordoxka dugu, baina gutxi gure elizbarrutirako. Horregatik, Afrikatik, Indiatik eta beste hainbat tokitatik datoz apaizak gure artera”, parrokoak kontatu digunez. “Gure sasoiari, apaiz izateak demaseko kategoria zeukan!”



Zatarra dela esango dute gero! SILBIA HERNANDEZ



Itziar Sapsootham

Itziar Sapsootham

P'alante

Aurreko astean gertatu zitzaidan pasadizo bat kontatzera natorkizue.

Oraindik opor egunak sobran ditut eta unibertsitateko lagun bati galdetu nion ia berak ere bazituen. Baietz. Konfirmatuko zizkidala egunak, baina hori bai, opor merkeak izan behar zirela. Guztiz ados ni ere. Uniko kuadrilako beste bati galdetu nion, banekielako Zaragozatik Iruñara bueltatzen zela eta hilabete sabatiko batzuk hartuko zituela. Erantzun berdina: baietz, edozein datatan eta merke.

Ostiral arratsaldea. Bazkal ostean.

Whatsappeko mezua:

- Itziar, azaroak 1eko astea? 5-6 egun juteko.

- Ok. Talde bat sortukot.

Talde berrian:

- Epa! Azaroak 1eko astea, ondo X (beste laguna)?

- Bai, oso ondo! Ze gogo!!!

- Jajaja baiii

- Nora goaz?

- Berdin jata baina zerbait merkia.

- Tallin eta Rigarekin

obsesionatua nago, baina esan

didate garagardoa eta hor

garestiagok direla.

- Bai, bai, badira. Eta Y bisitatzer a bagoaz Italiara?

- Baina Italia garestia da.

- Bai, egixa.

- Bestela, Españan, rollo Cadiz edo? Ez det ezagutzen.

- Nik bez.

- Nik bez.

- Vaya geografos de palo.

- Jajajaja

(Bai, geografoak gara eta ez gara inoiz Cadizen egon, nahiz eta mundu erdia ezagutzen dugun)

- Sevilla 50 euro jun eta etorri.

- Kotxe bat alkilatu dezakegu eta Cadizera joan.

- De lujo!

- Bilbotik?

- Bai.

- Hartu hegaldiak Itziar!

- Bale, pasau datuak.

Wasapeko taldea sortu eta 25 minutura bidai a hartuta, ordainduta eta antolatuta geneukan. Bi egunetara beste lagun bat batu zaigu. Egun bat lehenago bueltatu behar dela, baina ez arduratzeko, konponduko dela. Perfekto.

Inoiz ez zait gertatu plan bat hain azkar antolatzea. Agian izango da elkarrekin egoteko gogo handia genuela, moldagarriak garela, airez aldatu nahi dugula edo efikazia handiko pertsonak garela. Baina taldeko batek esan zuen bezala: hay que ir p'alante! Que problemas ya hay bastantes tia. Amen.

"Wasapeko taldea sortu eta 25 minutura bidai a hartuta, ordainduta eta antolatuta geneukan"

MAIALEN BILBAO • Idazlea

“Ezin dut maitasun istorio bat kontatu, hori ez naiz ni”

Orain dela sei urte ‘Martina’ idatzi ondoren, Maialen Bilbao idazle eibartarrak bere bigarren eleberria kaleratu du (tartean ‘Escala de grises’ poesia-liburua argitaratu zuen 2017an): ‘Nieve roja en Helen’s Bay’. Lehen liburuaren ildoari jarraituz, nobela beltza dakarkigu Maialenek, intrigaz betea.

Ipar Irlandako kostan dagoen herri txiki bat da Helen’s Bay eta hara eramaten gaitu Maialenek liburu honetan. Bertan etxe handi bat dago eta, barruan, gorpu bat. Familia perfektua dirudienak zerbait ezkututzen du eta errealtatea zein den ezagutzen laguntzen digu liburuak, misterioa argitu arte. Yraolagoitian eta LAESen dago salgai.

Liburua autoeditatu egin duzu Circulo Rojo editorialaren bitartez. Nolako lana eskatu dizu horrek?

Liburua editorial handietara bidali dut; baina, noski, idazle bezala ez naiz inor. Eta editorial handientzat, ez bazara inor, zaila da salmentak ziurtatzea. Orduan, autoedizioaren bidea hartu dut. Urteetako lana da, ia-ia seme-alaba bat edukitzea bezala. Asko desiratu dudana zerbait izan da eta horregatik egin dut. 300 ale publikatu ditut eta ez duzu Fnac-en ikusiko, adibidez, baina pixkanaka noa aleak banatzen.

Editorialak nolako laguntza eskaini dizu?

Hasiera batean, idatzitakoa bidali nien eurek baloratzeko. Baiezkoa eman zidaten eta hortik aurrerako lana eurekin egin dut elkarlanean. Demaseko laguntza eman didate: maketazioa, letra-mota, kapituluak noiz moztu, estiloa, azala, ISBN-n alta eman... Hiru liburuak eurekin idatzi ditut eta oso gustura nago egindako elkarlanarekin.

Liburuaren titulua ikusita, hilketaren bat egon dela dirudi. Ondo nabil?

Bai! Nobela beltzak, thrillerrak... idaztea gustatzen zait, Agatha Christieren antzera. Ezin dut maitasun istorio bat kontatu, adibidez, hori ez naizelako ni. Helen’s Bay Ipar Irlandan dago eta, euskaldun moduan, beti izan dut nolabaiteko lotura Irlandarekin. Ez dakit zergatik, baina familiarra egiten zait. Agian euri-tsua eta berdea delako, bertako mitologiarengatik... Ez dakit. Bertan egon barik (liburua idatzi ondoren egon nintzen), banekien istorioren bat han kokatu behar nuela. Bestetik, beti irakurri izan ditut nobela beltzak eta, hortaz, liburuaren ardatza hilketa bat da.

Hortik aurrera, gertatutakoa argitzen duzu?

Beno, ez da hainbeste gertatutakoa argitzea... Etxe handi batean pertsona batzuk daude eta euretako bat hil egiten da. Kanpoan elurra dago eta ezin dira bertatik irten. Denak dira susmagarriak eta, beno, hobe liburua irakurtzea (barreak).

Hilketaren istorioa kontatzeaz gain, 70. hamarkadan kokatuta dagoenez, Irlandan bizi zen giroa ere islatzen duzu. Nolako dokumentazio-lana egin behar izan duzu?

Lan handia! Liburua idazteko ematen nuen ordu bakoitzeko, beste bi ordu pasatzen nituen dokumentatzen. Edo gehiago! Sasoi hartan demaseko gatazka



Bidebarrietako Yraolagoitia eta Amañako LAES dendetan dago salgai Maialen Bilbaoren liburua. EKHI BELAR

bizi zen Ipar Irlandan. Horregatik aukeratu dut kokaleku eta sasoi hura. Izan ere, Euskal Herrian antzeko gatazka bizi izan dugu. Gero, istorioa ez da Irlandako gatazkan zentratzen, baina ezin dut Irlandan 70. hamarkadan kokatutako istorio bat kontatu gatazka armatua aipatu barik. Beraz, dokumentu asko irakurri ditut, mila dokumental ikusi... Batzuk astunak ziren, politika hutsa, baina istorioarentzat beharrezkoa zen horrekin janztea. Ia edozein gauza azaltzeko testuinguru hori kontuan hartu behar nuen. Istorio fiktizioa da, baina horrek ez du esan nahi dena asmatu behar duzunik. Adibidez, errebolber bat aipatzeko, nik ez dut idearik ere gai horren inguruan, baina zehatza izan behar nuen. Eta horrez gain, datuak eta zehaztasunak jartzeaz aparte, denak koherentzia izan behar zuen eta arlo estetiko eta idazmena landua izatea. Puntu bakoitzera heltzeko lan handia egin behar izan dut.

Istorioa hasieratik zenuen argi ala ikertu ahala gauzak aldatu zenituen?

Istorioa argi nuen hasieratik. Nik behintzat ezin dut elementu gutxi batzuk hartu eta istorioak nora eramango nauen ikusi. Gainera, gauza batzuk aldatuz gero, atzera egin eta beste batzuk aldatu beharko nituzke. Pertsonaietan eta euren arteko erlazioetan gauza batzuk aldatu daitezke, baina kontakizuna moldatu gabe. Liburuaren amaiera, noski, lehenengo momentutik


“Beti irakurri izan ditut nobela beltzak eta, hortaz, liburuaren ardatza hilketa bat da”

“70. hamarkadan demaseko gatazka bizi zen Ipar Irlandan. Horregatik aukeratu dut kokaleku eta sasoi hura”

nuen argi, bestela bidean galduko nintzateke. 20.000 post-it, eskemak, gidoia, pertsonaien deskribapena... Liburuan agertzen ez diren gauza asko sortu behar dituzu liburua idatzi ahal izateko. Adibidez, lehenengo kapituluan gauza bat esaten baduzu, 13.ean ezin duzu kontrako datu bat jarri. Gauza asko dira eta hori guztia kontrolpean izaten saiatu behar zara.

Lan hori liburua idatzi aurretik egiten da?

Nik bai, idazten hasi aurretik gauzak argi edukitzen saiatzen naizelako.



Misterio eta intrigaz beteriko liburua idatzi du Maialen Bilbaok. EKHI BELAR

“20.000 post-it, eskemak, gidoia, pertsonaien deskribapena... liburuan agertzen ez diren gauza asko sortu behar dituzu liburua idatzi ahal izateko”

Nondik abiatu zen liburu hau idazteko ideia?

2023. urteko Gabonetan kontakizunen liburu bat kaleratzeko asmoa dut. Misteriozko, beldurrezko eta intrigazko kontaketak dira eta horretarako bururatu zitzaidan istorio bat asko gustatu zitzaidan. Ikusi nuen kontaketa baterako motz geratzen zitzaidala eta ideia horretatik abiatuta istorioa garatzen hasi nintzen.

Kontakteten liburua albo batera laga behar izan zenuen eleberri honi heltzeko?

Bai, ezin nituen gauza biak uztartu. Liburu hau idazten buru-belarri egon naiz eta ia urte bi behar izan ditut horretarako. Pandemia hasi zenean hasi nintzen idazten eta, zentzu horretan, ondo etorri zitzaidan etxean denbora gehiago egotea. Dena dela, beti ibili naiz idazten, beti gustatu zait asko.

“Idaztea eta irakurtzea behar dut barruan daramadan guztia ateratzeko”

Beraz, ez duzu zure burua idaztera behartu behar?

Ez, alderantziz, idaztea behar dut barruan daramadan guztia ateratzeko. Baita irakurtzea ere.

la zazpi urte pasa dira ‘Martina’ argitaratu zenuenetik. Aldea igarri duzu bata edo bestea idazteko prozesuetan?

Bai, bai idazle moduan, bai esperientzia aldetik. Oraingoan gidoia prestatu dut, eskemak egin ditut, gehiago kokatu dut neure burua... ‘Martina’ lehen eleberria izan zen, ilusio hutsez eginikoa, eta azkenean bukatzeko gogoan nuen, nekatuta nengoelako. Azken liburu honen sorkuntza ezberdin bizi izan dut. Gainera, ni neu ere zazpi urte zaharragoa naiz eta idazteko orduan ere ikasi egin dudala ikusi dut.

KITTONBOLIA



ESKERRIK ASKO!!!

Eguraldia lagun eta eibartarrok berriz ere Arratiak ospatzeko gogotsu, goizeko hamarretan puntu-puntu zabaldu zituen ateak ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatzen duen KITTONBOLIAK.

Hurrengo eguna jai izanda, ohi baino beranduago hurbildu ziren eibartarrak Arratera, baina segituan jendez bete zen Kittonbolia eta milaka opari banatu genituen. Urdaiazpikoa, poltsak, pin-ak, afariak, jostailuak, jantziak, motxilak, bazkariak, egonaldiak, otarrak, diruzorroak, telebista, elektrodomestikoak, txuletak, boligrafoak, etxerako apaingarriak, legatzak... 18:00ak bueltan tonbola itxi genuen, sari guztiak banatuta!

Beste behin ere MILA ESKER esan behar dizuegu guztioi, Arrate egunean ere euskarari eman diezuen babesagatik. Dakizuenez, gure herrian euskararen alde lanean jarraitzeko erabiliko da bertatik jasotakoa. Eta eskerrik asko, nola ez, Kittobolako opari mordo hori osatzen lagundu diguzuen denda, elkarte, enpresa eta erakunde guztiei.

Herritarrak aldamenean izatea, bidea elkarrekin eraikitzeko benetako oinarria da.

MILA ESKER!!!!





ANTOLATZAILEA

...eta kitto! Euskara Elkartea

LAGUNTZAILEAK

- +QWAPOS TXAKUR-ILEAPAINDEGIA
- AGUIÑASPI TABERNA
- AKARA TABERNA
- AMAÑA GASOLINDEGIA
- AMAÑAKO JAIK
- ARATATTO
- ARREGI DOMINGUEZ ARRAINDEGIA
- ARTOLA JATETXEA
- ASKASIBAR KIROLDENDA
- ASPE PILOTA
- ASTELENA GASTROBAR
- ATHLETIC CLUB
- AZITAIN GASOLINDEGIA
- AZPIRI JOSTUNDEGIA
- AZPIRI SANEAMENDUAK
- BAGLIETTO DEKORAZIOA
- BAISI TABERNA
- BENICOBA ELEKTRODOMESTI-KOAK
- BIRJIÑAPE BERRIA TABERNA
- BURBUJAS Y MAS LURRINDENDA
- CAPI ESTETIKA

- CHIDO JATETXEA
- DANDARA JANTZIDENDA
- DIRDAI BITXITEGIA
- DITARE MERTZERIA
- EGUREN ELEKTRODOMESTI-KOAK
- EIBAR ESKUBALOAIA
- EIBAR RUGBY TALDEA
- EIBAR SASOIAN ONGIZATE ZENTROA
- EIBARBUS AUTOBUSAK
- EIBARKO TXIRRINDULARI ELKARTEA
- EIBARKO UDALA KULTURA



- EL CANTON DE LA AVENIDA



- EL VESTIDOR JANTZIDENDA

- EMANKOR TALDEA ERAIKUNTZAK



- EROSKI EIBAR HIPERMERKATUA
- FARMALUR/ FARMACOOK
- GENOVEVA ARRAINDEGIA
- GERRITEK INFORMATIKA
- GRATZINA JANTZIDENDA
- GUBY JANTZIDENDA
- GURIDI TABERNA
- HELMET HOUSE
- IBARKURUTZE FRUTADENDA
- IDOIA BERGARETXE ESTETIKA
- IKUSI EIBAR JANTZIDENDA
- INDUSTRIAS M A I L
- IPUR SAGARDOTEGIA
- IREI ESTETIKA
- IRRITSA JANTZIDENDA



- ITXESI BELARDENDA
- IXUA HOTELA
- IZADI LOREDENDA
- IZANE DEKORAZIOA
- IZASKUN HARATEGIA

- JAUREGI ETXERAKO TRESNERIA
- JAZ ZUBIAURRE
- JERONIMO JOSTAILUDENDA



- JORGE VEGA S.L. IGELTSERITZA
- K2 BITXIAK ETA ESKULANAK
- KANTOI GASOLINDEGIA
- KENKO OSASUN ETA ONGIZATEA



- KERALA ESTETIKA
- KHOL ILEAPAINDEGIA
- KLAUS DEKORAZIOA
- KOKEIN TALDEA
- KONTENT TABERNA
- KOPINA JANTZIDENDA
- KRESALA ARRAINDEGIA
- KULTU TABERNA
- LABORAL KUTXA



- LAKETT ESTETIKA
- LEDER POLTZO ETA OSAGARRIAK

- LOLA 'S JANTZIDENDA
- MARSÍ LOREDENDA
- MUGIKA HARATEGIA
- MUMA JANTZIDENDA
- NEURE DEKORAZIOA
- NO COMMENT JANTZIDENDA
- OBERENA HARATEGIA
- OROZ EXCLUSIVAS
- OTEGI HARATEGIA
- PUBLIRESA PUBLIZITATEA



- PIRRITX ETA PORROTX



- S.D. EIBAR
- SAN ANDRES GOZOTEGIA
- SOSOLA BASERRIA
- SU TA GAR TALDEA
- SUBEROA TABERNA
- TIRO PITXON JATETXEA
- TWINS JANTZIDENDA
- TXUTXUFLETAS GOZOKIAK
- UMEA JANTZIDENDA
- URDANIBIA JANTZIDENDA
- URKOTRONIK
- XARE JANTZIDENDA
- YRAOLAGOITIA LIBURUDENDA
- ZORIONAK LUDOTEKA
- ZUBI GAIN TABERNA

**ESKERRIK
ASKO
GUZTIOI!!!**

Gosotsu ospatu ditugu Arratiak

Hiru urteren ostean, inoiz baino bereziagoak izan dira aurtengo Arrateko jaiak. Askorentzako zubia izanda ere, giro ederra sortu zen txoko eta ekitaldi guztietan. Batzuk oinez, beste batzuk kotxez eta asko eta asko autobusez igo ziren, eta jendea uneoro gogotsu ikusi genuen Arrateko Amaren omenezko jaiak betiko moduan ospatzeko. Eguraldia ere lagun izan genuen. Ezin gehiago eskatu!

ARGAZKIAK



BIDEOAK









Lahasan, Buyema eta Achwak, Eibarko beraien ama den Edurnerekin, Kalamua puntan.

Oporrak Bakean programarekin etorritako 152 adingabe sahararrak abuztuaren 31n itzuli ziren beraien etxeetara, Tindoufeko (Aljeria) kanpamentuetara, hemen hilabete pasatu eta gero. Horietako lau ume Eibarren egon dira, hiru Edurne Uzkudun Eibar-Sahara Elkarteko kidearen etxean: Lahasan eta Buyema anaia bikiak eta Achwak beraien iloba.

Hilabeteko oporrak bakean igaro eta gero, kanpamentuetara bueltan

Abuztuaren lehen egunetan opari ugari jaso zituzten haurrek. Besteak beste, Eibar Kirol Elkartek taldearen eskutik ekipazio bana hartu zuten haur guztiek eta Pinto herritik, berriz, 18 bizikleta oparitu zizkieten Contador Fundazioak, Škodak eta Seurrek sustatzen duten “Bicis para la vida” izeneko proiektuari esker. Beste edozein umek bezala, Saharatik etorritako haurrek ere pozarren hartzen dituzte beti horrelakoak, baina askoz garrantzitsuagoak diren beste “opari” batzuk ezin dira ahaztu. Izan ere, basamortuan dauden bizi-baldintza gogorregatik, sarritan osasun arazo larriak izaten dituzte eta, horregatik, Euskal Herrian daudenean, primerako oporrak pasatzeaz gain, ondo elikatze eta osasuna zaintzeko apro-



betzatzen dute. Horren adibide garbia da Lahasan. Epilepsia du eta migraña oso gogorrek izaten ditu, baina han ez dago gaixotasunari aurre egiteko baliabiderik. Eibarrera ailegatu berri hasi zen migraña horietako batekin: “Neuropediatrak esandako guztia egin arren, buruko mina ez zitzaion joaten eta azkenean Mendarora eraman behar izan genuen. Tratamendua eman eta ordu batzutan etxera bueltatu ginen. Gauza bera han dagoenean gertatuz gero, lauzpabost egun pasatu beharko lituzke lurrian botata eta minarekin”.



33 parte-hartzaile Simon Aldazabal proban

Pello Osorok bere bilduma handirako beste garaipen bat lortu zuen aurreko domekan, oraingoan bere jaioterrian bertan, Simon Aldazabal lasterketa bereganatuz. Osorok 26 minutu eta 5 segundo behar izan zituen Arrateko helmugara iristeko eta, horrela, El Hassan Oubadik 2011n egin zuen markak (25'02") indarrean jarraitzen du. Eibartarraren atzetik helmugaratu ziren Josu Uriarte markinarra eta Aritz Sorzabal irundarra. Saioa Ugidos izan zen parte-hartzaile bakarra emakumezkoetan eta berak ere ezin izan zuen 2011ko XVI. edizio hartan

Cristina Loedik lortutako marka (32'21") hobetu. Guztira 33 lagun izan ziren parte hartzen eta Urkizutik lehen pasatu zirenei zegozkien txuletak Markel Gutierrezek eta Saioa Ugidosek irabazi zituzten. Horrez gain, bertako produktuekin osatutako hiru otar ere zozketatu zituzten. Bestelako irabazleak honakoak izan ziren: lehen eibartarraren saria Eduardo Talanentzat izan zen, 35 urtetik gorakoarena Javier Muriarentzat, 45etik gorakoa Farid El Idrissirentzat, 55etik gorakoa Javi Aldairentzat eta 65etik gorakoarena Juan Bautista Balduviejorentzat.



Arraten proba behin amaituta osatutako podiumaren irudia.

Hamar taldek hartuko dute parte foball-zaletuaren 41. edizioan

Ohikoa denez, lau hamarkada atzean laga dituen foball-zaletuaren ligak Unben izango du asteburuko hitzordua. Zapatuko jardunaldian hiru partidu jokatu dira eta beste biak domekarako geratu dira. Lehen jardunaldiko partiduak honakoak izango dira: hilaren 17an, Chic - Feredu Bar EzDok (goiko zelaian) eta America Sport - Bali

Center Sports (behekoan) partiduak jokatu dira 09:00etatik aurrera, eta Bar Banaka L. Rueda - JMR Tankemans neurketa ordu eta erdi geroago hasiko da, 10:30ean; hilaren 18an, ordutegi berarekin, Bar Txokok eta Gastro Gildak lehiatuko dute 09:00etan, eta Adahi Eraieder eta Garajes Garcia taldeek indarrak neurtuko dituzte 10:30ean.

Flysch Beltza probaren 8. edizioa jokatu da zapatuan

Eibar Igerixan klubak antolatutako uretako zeharkaldi horrek, urtero lez, bi ibilbide izango ditu: luzeena Saturraranen irtengo da goizeko 11:00etan eta Debaraino eramango ditu igerilariak, sei kilometro eta erdiko distantzia bete ondoren, eta motzagoa dena, hiru kilometrokoa, eguerdiko 12:00etan irtengo da Mutrikun eta hori ere Deban amaituko da.

Hainbat kirolari nabarmendu dira uda sasoiko lehiaketetan

MIREN URIZAR waterpolista bosgarren izan zen Espainiako selekzioarekin Belgradon jokaturako 18 urtetik azpiko Mundialeko txapelketan

JOKINAJA eskubaloilariak Montenegron jokaturako 20 urtetik azpiko Europako txapela jantzi zuen Espainiako selekzioarekin **IMANOLEGIDAZU** zazpigarren dekatloian Jerusalemen jokaturako 18 urtetik azpiko Europako txapelketan

GAROA MAGUNAZELAI Meeting 20 ans Pays Basque Athletismen xabalina jaurtiketaren lehiaketa irabazi zuen

HODEI EZPELETA "BIHURRI" laugarren izan zen Donostiako Aste Nagusiaren barruan jokaturako Urrezko Kopan parte hartu zuen lehenengo aldian.

JAZ Eibar Triatloi Taldeko **MIGUEL LEDESM** bigarren amaitu zuen Riosecoko erdi distantziako triatloian, 23 urtetik azpiko txapela janzteaz gain.

Eibar KEren akziodunei ahotsa eman nahi die Beti Eibar elkarteak

Uztailean Beti Eibar – Eibar Forever elkarteak aurkeztu zuten, Eibar KEren akziodun batzuen ekimenez. Mundu osoan sakabanatuta dauden akziodunei ahotsa emateko asmoz sortutako ekimena da, klubaren alde eginez. Uda atzean lagata, martxa betean dago taldea eta Aitor Moya, Ainhoa Ormaetxea eta Ion Aranburu kideek egitasmoaren berri eman digute.



Informazio gehiago
elkartearen webgunean:



Eibar KEren gizonezkoen talde nagusiak ondo hasi du denboraldia eta, aurreko denboraldiko bideari jarraituz, goiko postuetan dago sailkapenean. Iazko atsekabeak ilusioari egin dio tokia poliki-poliki eta, asteleheneko partiduan ikusi zen bezala, zaleek taldearekin daudela erakusten dute, garaipenean zein porrotean.

Eibarrek zalego sendoa izan du beti. Kopuruan txikia foballeko klub erraldoiekin alderatuz, baina menderaezina. Gaur egungo Eibar KE ez da orain dela bederatzi urtekoa bezalakoa, Lehen Mailan zazpi denboraldi pasa ditu eta, klubaren egitura eta baliabideak guztiz aldatzeaz gain, askoz ere ezagunagoa da munduan zehar eta zale gehiengo gehitu dira familia armaginerara. Baina, gauzak horrela, taldearen arimari eustea da eibarzale gehienen helburua.

Zentzu horretan, eta Lehen Mailara igotzerakoan klubak akziodu-

nak bilatzeko egindako kanpaina masiboa kontuan hartuta, Eibar KEren akziodun talde batek Beti Eibar plataforma sortu du. “Kapital hazkundera egin zenean klubaren akzioak zati askotan banatu ziren mundu guztian zehar, gehienezko kopuru bat zehaztuta, inork ez zezan boterea pilatu. Ondo pentsatuta dago hori nire ustez”, diosku Ion Aranburu; “baina, era berean, akzioak oso sakabanatuta daudenez, ez da erraza akziodun guztiei hitza ematea eta, gainera, baliteke, akzio kopurua txikia izanda, erabakiak hartu behar direnean jendeak paso egitea, pisu handirik ez dutela pentsatuz. Adibidez, azken Akziodunen Batzarrean ikusi zen akziodun kopuru handi batek ez zuela parte hartzen”.

Eibar KEk 11.000 akziodun inguru ditu gaur egun. “Euretako asko klubari laguntzeko egin ziren akziodun. Batzuek klubaren jarduna jarraitzen dute, baina beste batzuk ez dakite egunerokotasunean zer



Beti Eibar elkarteko Aitor Moya, Ainhoa Ormaetxea eta Ion Aranburu. EKHI BELAR

gertatzen ari den. Zentzu horretan, ez dakit gardentasun edo informazio falta den, baina nahi duguna da jendeak kluba zertan dabilen jakitea”, esan digu Aitor Moyak. Horregatik sortu dute elkartea.

Esan bezala, Eibar KE aldatu egin da azken urteotan, eta Beti Eibar elkarteak uste du horrelako ekimen bat falta zela klubaren inguruan, klubaren eta zaleen arteko lotura estuari eutsi nahi bazaio behintzat. “Eibarren interesen alde egingo dugu beti, klubaren parte den edonork izan ditzakeen interes pertsonalen aurka eta klubaren ohiko kudeaketari balio erantsia eskainiz”, aipatzen du Beti Eibarren aurkezpeneko txostenak.

Inoren aurka, Eibarren alde

Beti Eibarrek kideak jakitun dira elkartearen sorrerak hainbat galdera sortu dituela eibarzaleen artean eta gauzak argi laga nahi dituzte

“Ikusten dugu akziodunei ez zaiela klubaren inguruko informazioa iristen eta gu lan hori egiteko prest gaude”

hasieratik. “Jendeak uste du egitasmo hau iazko desilusioaren harira sortu dela, baina ez da horrela, orain dela urtebete baino gehiago ari ginelako hau guztia martxan jartzen”, azaldu digu Moyak. “Hau ez da inoren aurka joateko, ezta berotasun kontua ere”.

Era berean, elkarteko kideek argi laga nahi dute hau ez dela klubaren zuzendaritzan sartzeko edo hautes-

kundeetara aurkezteko mugimendu bat. “Klubaren zuzendaritzan dagoena dagoela, akziodunen berbak entzunak izateko sortu dugu elkartea, irauteko asmoarekin”, argitu digu Ainhoa Ormaetxeak.

Eta Eibar KEk nola hartu du Beti Eibar plataformaren sorrera? “Uztaileko aurkezpena egin baino 2-3 egun lehenago Amaia Gorostiza presidentearekin eta Jon Ander Ulazia kontseilari nagusiarekin bilera egin genuen eta esan ziguten ez zutela ikusten horrelako erakunde baten beharra”, esan digu Moyak. “Agian hasieran pentsatu zuten euren aurka egingo genuela, baina gure asmoa ez da hori”, diosku Ormaetxeak.

Moyak dio Beti Eibar erreminta ona izan daitekeela Eibar KEren zuzendaritzarako. “Ikusten dugu akziodunei ez zaizkiela iristen klubaren egunerokoan gertatzen diren gauzak eta gu prest gaude lan hori egiteko”, azaldu digu. “Gainera,

“Klubaren zuzendaritzan dagoena dagoela, akziodunen berbak entzunak izateko sortu dugu elkarte, irauteko asmoarekin”



guk geuk ere hiru hilabeteen behin txostena bidaliko diegu taldeko kideei egin duguna azalduz. Horrelako zerbaiten falta igarri dugu klubean”.

Iritzi berekoa da Aranburu. “Beti Eibar tresna aberasgarria izan daiteke Eibar familiarentzat. Gainera, zuzendaritzak tanto bat apuntatzeko aprobetxatu dezake aukera, akziodunnei entzuten diela erakutsiz”, diosku.

Akzioak batzen

Abuztua tartean, Beti Eibar politikoliki doa bere egitasmoa ezagutzera ematen, baina taldeko kideen berbetan, “eibarzaleek gogoarekin hartu dute egitasmoa”. Azaldu digutenez, “70-75 lagun gehitu dira elkartera”.

Beti Eibar elkarteak akziodun guztien iritziak jaso nahi ditu, “50 akzio edo bakarra izan”, eta elkartearen barruan kide bakoitzak boto bat izango du. Gainera, egituraren barruan hainbat talde osatu dira arlo ezberdinak lantzeko (zuzendaritzaz



Eibar KEren alde egitea da Beti Eibar elkartearen asmoa. SD EIBAR

gain, marketing- eta komunikazio-taldea dute, akziodunak bereganatzeko taldea eta teknologiaz arduratzen dena).

Gaur egun akziodunen datuak jasotzen ari dira, kideak batzen, baina horrek ez du esan nahi gero elkarteak, nahi duena egingo duenik jasotako akzioekin. “Erakundeak pisua hartuko du akzioak batuz, baina Eibar KEren zuzendaritzari zerbait igorri aurretik kideen artean adostu behar dugu puntu hori

aurrera eramango dugun ala ez”, azaldu digu Moyak.

Orain, bultzakada emango diote ekimenari eta, tarteka, informazioa eskaintzen ibiliko dira Ipurua foball zelai inguruan neurketa egunetan. Gainera, Coliseoan ekimenaren berri emateko saioa eskaintzeko asmoa dute eta, bestela, betieibar.eus webgunean elkartearen inguruko informazioa dago eta sare soziale-tan euren inguruko jardunaren berri ematen dute.



Idazlearekin Harixa Emoten saioetarako izen-ematea

Irailaren 23an itxiko da Udal liburutegiak ...eta kitto! Euskara Elkartearekin elkarlanean antolatutako Idazlearekin Harixa Emoten euskarazko irakurketa klubetarako izen-ematea, baina oraindik toki batzuk badaude. Saiok Portalean izango dira, hilean behin, eta ikasturte honetan Ainhoa Aldazabalek dinamizatuko ditu. Parte-hartzea guztiz doakoa da eta izen-ematea online egin behar da, nahitaez, Udalaren webgunean dagoen formularioa beteta.



Bizidekarra Untzagan ibiliko da martitzen arratsaldean

Martitzenean, 18:30ean, AEKren bizidekarra ibiliko da Untzagan. Gainera, musikaz eta janariak girotuko dute arratsaldea. AEK euskaltegiak 22-23 ikasturteko matrikulazio kanpainaren baitan antolatu du ekintza: "Izan ere, ikasturte berrian euskara ikastera animatu nahi ditugu eibartarrak: gazteak, helduak, jubila-tuak... denentzako aukera zabala daukagu". Azaldu dutenez, bizidekarrarekin ikasle eta irakasleen arteko lotura irudikatu nahi da, "elkarrekin egiten dutelako euskara ikasteko bidea". Informazio gehiago www.aek.eus helbidean.

Jubilatuentzat informatika ikastaroak antolatu dituzte

Biztu elkartek informatika ikastaroak antolatu ditu herriko lau jubilatuei etxeetako bazkideentzat. Urritik abendura bitartean oinarrizko informatika, WhatsApp aplikazioa nola erabili, irteerak Internet bidez prestatzen, tramiteak egiten eta antzinako irudiekin lan egiten ikasteko aukera egongo da. Klaseak Untzagako jubilatuei etxeko zibergelan izango dira eta, izena emateko, bertara joan daiteke astelehenean barixakura, 17:00etatik 19:00etara. Informazioa eskatzeko, berriz, 943701921 telefono zenbakira deitu edo ciberaulaeibar@yahoo.es helbidera idatzi daiteke.



"Lubaki lainotsua" antzezlana

ATX Teatroak "Lubaki lainotsua" taularatuko du datorren asteko barixakuan, 20:00etan Coliseoan (euskaraz). Taldearen 10. urteurrenerako sortutako 10. proiektua den lan honetan Maren Basterretxea, Miriam K. Marchante eta Javier Barandiaran antzezleek hartuko dute parte. Sarrerak 8 euro balio du (6 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).

Indalecio Ojanguren lehiaketara aurkezteko epea 30ean itxiko da

Eibarko Udalak eta Eibarko Klub Deportiboak Indalecio Ojanguren XXXV. Argazki Lehiaketa antolatu dute. 09/2022 Argazki Lehiaketaren sailkapenerako baliagarria izango den lehiaketan edozeinek har dezake parte, gehienez hiru argazki zuri-beltzean eta beste hiru koloretan aurkeztuta. Lanak entregatzeko azken eguna irailaren 30a izango da. Lehiaketari buruzko informazio zehatza www.eibar.eus helbidean. kontsultatu daiteke.



Mise en Abyrne, Xsakara eta DJ Blessive bihar Errebalen

Bihar ailegatuko da gure herrira Gipuzkoan Gazte Tour, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria sailak 16 eta 25 urte bitarteko gazteentzat antolatzen duen kultura-zirkuitua. Musika eta arte eszenikoan inguruan hainbat ekimen biltzen dituen programa hau Udalarekin elkarlanean garatzen da eta Errebal Plazan, 18:30ean hasiko den jaian, musika estilo ezberdinak jorrazten dituzten artistek hartuko dute parte. Batetik, Ander Zenitagoiak (bateria), Aitor Suarezek (gitarra) eta Andoni Sodupek (gitarra) osatzen duten Mise en Abyrne, Eibarko metal progresibo instrumentaleko hirukoteak joko du. Eta, Eibarko taldearekin batera, Bermeoko Xsakara rap abeslariak eta Basauriko DJ Blessivek biribilduko dute zapatu arratsaldeko jaialdia. Sarrera dohainik da.



Giro ederra egon zen Arrate bezperako bertso-afarian

Primeran pasatu zuten Arrate bezperako bertso-afarira joandakoek. Tiro Pitxon jatetxeko jangela bete-beteta egon zen eta lau bertsolariak ondo baino hobeto bete zituzten Jon Mikel Mujikak ipinitako lan guztiak. ...eta kitto! Euskara Elkarteak antolatutako saioa ordubatak arte luzatu zen eta jendea oso gustora irten zen.




Afariketan eta ludotekarako aurrematrikulazioa

Astehenean zabalduko dute Errebal Afariketan, Afariketan eta Jazinto Olabeko ludotekan parte hartzeko aurrematrikulazioa eta online egin beharko da nahitaez, Eibarko Udalaren web orrian eskuragarri ipiniko duten formularioa beteta. Errebal Afariketan Errebal plazan eta Indianokua gaztelekuan egingo da eta Afariketan, berriz, Arrateko Andra Mari ikastetxean, Sansaburun eta Tiburtzio Anitua 27ko lokalean (Amaña). Kasu bietan Haur Hezkuntzako 3. mailako hurrekin eta Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailakoekin garatzen dira programak. Eta Jazinto Olabeko ludoteka zerbitzua Haur Hezkuntzako 3. mailatik Lehen Hezkuntzako 6. mailara bitartean dauden haurrentzat da. Ordutegiak eta bestelako informazioa ikusteko Udalaren webgunera jo dezakezue.

Kezkaren dantza-eskolarako izen-ematea zabalik dago

Kezka dantza taldeak kudeatzen duten Dantza Eskolan 2022-23an jarduteko izen-ematea zabalik dago, nagusientzat zein haurrentzat (2018an jaiotakoetatik aurrera). Izen-emateak bideratzeko kezka@dantzan.com helbidera idatzi behar da, ikaslearen izen-abizenak, telefono zenbakia eta jaiotze-data adieraziz (helduen kasuan, aukeratutako ordutegia), gero harremanetan jarri ahal izateko. Informazio gehiago helbide elektronikoa erabiliz ala, nahiago izanez gero, 605711429 zenbakira idatzi edo deituta eskura daiteke.






**Luis Jesus
Ramos Aizpurua**

5. URTEURRENA
2017/09/14

*"Beti zurekin,
beti gurekin.
MAITE ZAITUGU"*



- ETXEKUAK -


**Ramon
Hernaltes Treviño**

5. URTEURRENA
2017/08/05

Bost urte pasatu
badira ere,
gure bihotzetan
jarraitzen duzu.



- ZURE FAMILIA -



**Jesus
Artolazabal Arluziaga**
2022/08/09

**Maite
Narbaiza Azkue**
5. URTEURRENA
2017/09/18

"Beti gure bihotzetan"
- ETXEKOAK -



**Juan Manuel
Arevalo Aizpuru**

2022/09/09

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan gurekin
egon zareten lagun eta
familiako guztiol.



- ETXEKOAK -

**Esteban
Okamika Dubowik**

2022/09/06

Ez zaitugu inoiz
ahaztuko.



- ZURE LAGUNAK -

Alejo Martinez Sanchez

Hainbeste maite genuen
ALEJO MARTINEZ
SANCHEZ'en familiakoek
egun hauetan jendeak
erakutsitako maitasuna,
beroa eta babesa biziki
eskertu nahi dugu

Eskerrik asko
bihotzez



Alejo Martinez Sanchez

Gure artetik joan zara
denon nahigabearen.
Beti egongo zara
gure oroimenean.

MAITE ZAITUGU
- ZURE KUADRILLA -



Juan Felipe Arana Etxaburu

2022/09/01

Luxu handia izan da,
FELIPE, bide hau
zurekin egin izana.

- GELAKO GURASO
ETA SEME-ALABAK -



Juan Felipe Arana Etxaburu

2022/09/01

"Ez zaitugu
ahaztuko"

ESKERRIK ASKO
une latz hauetan gurekin
egon zareten lagun
eta familiako guztioi,

- ETXEXOAK -



Ez zaitugu inoiz ahaztuko, FELIPE BETI GURE BIHOTZETAN



- Ana, Anacris, Asun, Belen, Cristina, Maite, Marisa, Myriam,
Javi, Jon, Juancar, Manli, Roberto, Sepe, Tofo eta Victor -

Juan Felipe Arana Etxaburu

2022/09/01

Malkoak zurgatuta,
elkarrekin egindako bidea
jarraituko dugu

-AGUR ETA OHORE-

ELA DEBA

ELA-ko lagunok
ez zaitugu ahaztuko



ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	5	7		8	3		
					4		8
		8			2		
5				9	7		2
	6		1		3		5
2			5	6			1
			3			2	
8		3					
		5	9			1	8

C	B	I	A	J	S	T	P
L	T	S	L	T	P	C	B
P	O	F	T	E	R	P	A
L	C	A	P	A	R	S	
P	O	F	T	E	R	P	A
L	C	A	P	A	R	S	
L	C	A	P	A	R	S	
P	O	F	T	E	R	P	A
L	C	A	P	A	R	S	
P	O	F	T	E	R	P	A
L	C	A	P	A	R	S	

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

			2		6		
1	3				9	2	
	6	1					
	2	9			8	5	
9		7	5			3	
6	3		4	9			
				4	3		
4	8				7		9
	6		5				

soluzioa

B	P	L	S	L	S	T	P
L	C	A	P	A	R	S	
P	O	F	T	E	R	P	A
L	C	A	P	A	R	S	
P	O	F	T	E	R	P	A
L	C	A	P	A	R	S	
P	O	F	T	E	R	P	A
L	C	A	P	A	R	S	
P	O	F	T	E	R	P	A
L	C	A	P	A	R	S	
P	O	F	T	E	R	P	A



AURKITU 15 EZBERDINTASUNAK



Irailak 16/22

ZAPATUA 17

BIZIKLETA AZOKA

10:00/14:00 Bizikleten eta mugikortasun jasangarriarekin lotutako objektuen bigarren eskuko azoka. Tailerrak. Untzaga.



GIPUZKOAKO ITZULIA

10:30/14:00 eta 15:30/19:30 "Bizibideak, Gipuzkoako bizikleta-bideen sarea" informazio-gunea. Untzaga.



WELCOME OPORRETAN

11:00 Puzgarriak eta karts-ak, musikarekin lagunduta.
14:30 Herri-bazkaria.
16:30 Haurrendako parkea.
17:00 Txotxongiloak, Bihar taldearekin.
18:00 Txokolate-jana.
18:30 Patata-tortilla lehiaketa.

21:00 Aitorpenak, The Pladoures eta The Jacintones taldeen kontzertua. Amaña.

MUSIKA

18:30 Gipuzkoan Gazte Tour: Myse en Abyme, Xsakara eta DJ Blessive. Errebal Plaza.



DOMEKA 10

ARRATE IZENEKOAK

Arrate izenekoen jaiaren XXV. urteurrena. Meza Arrateko santutegian eta bazkaria Arriarte hotelean (Azitain).



GIPUZKOAKO ITZULIA

10:30/14:00 "Bizibideak, Gipuzkoako bizikleta-bideen sarea" informazio-gunea. Untzaga..

BIEN APARECIDA

12:00 Bien Aparecida Ama Birjinaren jaiak. Meza San Andres elizan.
14:00 Bazkideentzat piskolabisa, Kantabriako Etxean (Jardiñeta kaleko tabernan).

MARTITZENA 20

BIZIDEKARRA

18:30 AEK-ren bizidekarrak, musika eta janaria. Untzaga.



EGUAZTENA 21

HITZALDIA

18:00/19:30 "Bizikleta elektrikoa Eibarren nola erabili", Klub Deportiboaren eskutik. Errebal plazan (A aretoan).

EGUENA 22

HITZALDIA

18:30 "Migrazioa ez da delitua. Bizitzak salbatzea ez da delitua". Hizlariak: Aita Mari ontzia, Mugarik Gabeko Medikuak eta Irungo Harrera Sarea. Portalea (areto nagusia).



Eskualdeko Agenda

SORALUZE

MESEDEETAKO JAIAK

16an (barixakua)
 18:00: Txupinazoa
 18:30: Umeendako jolasak
 19:00: Txorizo dastaketa
 20:30: DJ Arno
 22:30: Mus txapelketa
17an (zapatua)
 12:30: Buruhandiak
 13:00: Toka txapelketa
 14:00: Paella herritarrak
 16:00: Jolasak
 16:00: Tute txapelketa
 19:00: Lopeneren animaliak
 22:30: DJ Kool
 00:00: Su Festak
18an (domeka)
 12:00: Tortilen banaketa
 12:30: Dantza emanaldia
 13:00: Toka txapelketa
 13:30: Tortilen dastaketa
 15:00: Amaiera

DEBA

ORIENTAZIOA

17an (zapatua)
 10:00/11:00: Debabarrena Orientazio Raid-a Zumardian
IGERIKETA
17an (zapatua)
 11:00/12:00: Flysch Beltza igeriketa proba Saturraranetik eta Mutrikutik irtenda

ELGOIBAR

DULTZAINA EGUNA

18an (domeka)
 10:00: Diana, Arrasate, Bilbo, Guardia, Eltziego, Tutera, Iruña, Artaxoa, Zaragoza, Baigorri eta Elgoibarko dultzaineroekin
 11:15: Kalejira, Udal Musika Bandarekin
 12:30: Kontzertua Kalegoen plazan.

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **17an:** 19:45, 22:30
- **18an:** 20:00
- **19an:** 20:30

“After. Amor infinito”
Zuzendaria: Castille Landon



2 ARETOA

- **17an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **18an:** 17:00, 20:00
- **19an:** 20:30

“El test”
Zuzendaria: Dani de la Orden



ANTZOKIA

- **17an:** 17:00⁽¹⁾, 19:45, 22:30
- **18an:** 17:00 (1 aretoa), 20:00
- **19an:** 20:30

“La vida padre”
Zuzendaria: Joaquin Mazón



ANTZOKIA

- **17an:** 17:00
- **18an:** 17:00

“DC Supermaskoten Liga”
Zuzendaria: Jared Stern



aeek euskara praktikatzen

EUSKARA
IKASTEKO BIDELAGUN ONENA

Eibarko AEK euskaltegia
2022/2023 EUSKARA IKASTAROAK
MAILA GUZTIAK A1, A2, B1, B2, C1, C2
Azterketak ofizialak prestatzeko aukera
Te lehenik gaitikoa ez da!
MATRIKULA ZABALDU: aukeratu zifera zehar
Sotoba Kalea 1, 1º solairua - 943 20 13 79 - eibar@aeek.eus

DIRULAGUNTZAK/BIKAK

EIBARKO UDALA 1942

FUNEUSKADI
Grupo Sestao

FUNERARIA MUGICA
Funerakadi

TANATORIO EIBAR

TANATORIO ERMOIA
EGGIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xaillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olaoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marquis de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao

688 62 76 89

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **MARTI!**
Bixar urtetxua
beteko dozu-eta!
Patxo potolo bat
famelixa guztiaren
partez.



Zorionak, **NAIA,**
abuztuaren 19xan
6 urte egin
zenduaz-en-eta.
Asko maitte
zaittugun etxe-
kuon partez.



Zorionak, **LOREA!!!**
Eguaztenian
10 urte bete
zenduaz-en-eta!
Patxo haundi bat
famelixa guztiaren
partez!



Zorionak, **HAIZEA,**
zure 5. urtebet-
tzian. Patxo haundi
bat zure fameli-
xaren eta, batez
be, Izaro, Julen eta
Anderen partez.



Zorionak, **IAN,**
abuztuaren 27xan
4 urte bete
zenduaz-en-eta.
Asko maitte
zaittugu,
printzipito!!



Zorionak, **NOA,**
hillaren 20xan
3 urte beteko
dozuz-eta. Musua
famelixaren eta,
batez be, Alaitz eta
Gaizkaren partez.



Zorionak, **OIHAN,**
atzo 6 urte bete
zenduaz-en-eta.
Patxo haundi bat
famelixa guztiaren
partez. Ondo pasa,
txapeldun!



Zorionak, **BERA,**
hillaren 5ian 3 urte
bete zenduaz-en-
eta. Jarraittu holan.
Patxo haundi bat
Manex eta Paulen
partez.



Zorionak, **NAIA,**
aurreko dome-
kan 4 urte bete
zenduaz-en-eta.
Etxeko guztion
partez, asko maite
zaittugulako!



Zorionak, **ANE!!**
Atzo 2 urtetxo bete
zenduaz-en-eta.
Primeran pasau
genduan! Musu
haundi bat etxeko
guztione partez!!



Zorionak, **MATEO,**
hillaren 7xan
2 urtetxo bete
zenduaz-en-eta.
Asko maitte
zaittugu! Famelixa
guztiaren partez.



Zorionak, **ANE**
Agote, abuztuaren
29xan 6 urte egin
zenduaz-elako.
Musu bat fameli-
xaren eta, batez be,
Asierren partez.



Zorionak, **PEIO, ALAZNE**
eta **OINATZ!** Hirurok irailian
urtiak betetzen dozuez-eta.
Musu pillua fameli-
xa guztiaren partez.



Zorionak, **MANEX** (abuztuaren
8xan 9 urte), mutil haundi, eta
amatxo **SUSANA**, urtiak bete
dozuez-eta. Musu haundi bana.

Iragarki laburrak



688 62 76 89
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Eteak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA

1.1. Salgai

- Etxebizitza salgai Errioxako Fuenmayor-en, Logroñotik 5 minutura. 3 logela. Egoera onean eta zentrikoa. 60.000 euro. 657779811..

1.2. Errentan

- Bikoteak etxebizitza hartuko luke alokairuan. Erreferentziak. 667060292.
- Zumaian etxebizitza alokatzen da hamabostaldika irailean. 2 logela ditu eta ondo kokatua dago. 616382416.

- Unibertsitatean ikasten diharduen bikoteak (lan finkoarekin) pisua hartuko luke alokairuan. 1 edo 2 logelakoa. Erreferentziak. 637918620..

3. LOKALAK

3.1. Salgai

- Lursail/terreno baten bila nabilerosteko Eibarren edo inguruan. 669141127. Ibon.

4. LANA

4.1. Lan bila

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642578943.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 642577823.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. 624131378.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (tituluarekin) gauzez. Externa. 612461503.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 622023451.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta informeak. 722408667.
- Neska eskaintzen da goizez nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Esperientzia eta informeak. 689003537.
- Neska eskaintzen da umeak zaintzeko. EGA tituluarekin. 610324903.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 653236030.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Orduka. 664109570.
- Emakumea eskaintzen da edozein lan egiteko. 654210024.
- Gizonezkoa eskaintzen da lorazain edo peoi bezala, nagusiak zaintzeko eta kamarero jarduteko. 631868165.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Orduka. 660542155.
- Irakaslea eskaintzen da akademiatan edo haurtzaindegietan lan egiteko. 688628235. Jone.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko (pegorak...). 671677160.
- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 672421587.
- Emakumea eskaintzen da arratsalde umeak edo nagusiak zaintzeko eta dandan lan egiteko. 680117171.
- Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Interna. 637222318.
- Neska euskalduna eskaintzen da haurrak zaintzeko. Esperientzia eta Magisteritza ikasketekin. 648625209.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Baita gauzez eta asteburuetan ere. Orduka. Erreferentziak. 664888779.

4.2. Langile bila

- Higienista bukodentala behar da hortz klinika batean. Bidali curriculum: hortzclinika.06@gmail.com
- Elgoibarko mekanizazio-enpresak langilea behar du Danobat RP1200 artezteko makinan (rektifikadora) lan egiteko. Ezinbestekoa esperientzia izatea. Lan-kontratu mugagabea eskaintzen da. email: angel@swisslan.es

- Pertsona behar da taberna batean lan egiteko. 695690784.
- Kamarera/o behar da Eibarko jatetxe batean. Bidali curriculum: Eibarko 331 postakutxatilara.
- Kamarera/o behar da Eibarko taberna batean. Esperientziarekin. 665308025. ionurion@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA

5.2. Eskaintzak

- Matematika, Fisika eta Kimikako eskola partikularrak ematen dizkiet LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestaketa-arako ikasleei. Gehienez lau lagun. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. Edozein arlo. 615708043.
- DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827. Patrizia.
- LHko klase partikularrak ematen dira. 640019325. Nerea.
- DBHko, Batxilergoko eta Selektibitate prestaketa-klaseak ematen dira. Talde txikiak. 678937827.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK

6.1. Salgai

- Eibar BHIko DBH3. mailako liburuak salgai. 615712216.
- Yamaha PSR E223 pianoa salgai. 80 euro. 669208763.
- Batxilergo 1-eko liburuak erosiko nituzke. 688679682. Amaia.

Bueltan dira 10 Kia Egunak.


Irailaren 15etik 26ra arte.





Movement that inspires

Zerbait gustuko duzunean zerbaitengatik izaten da. Aprobetxatu itzazu 10 Kia Egunak eta berehala ulertuko duzu zergatik izan garen 2022ko kotxe-markarik salduena. Zure zain gaude.

KIA
NAIA CAR

 Apalategi, 1 EIBAR

 943 70 70 33 

www.kia.com

WLTP (g/km) Co2 emisio konbinatuak: 100-162. WLTP kontsumo konbinatua (l/100 km): 4,4-7,4. Promozioaren baldintzak kontsultatu www.kia.com webgunean. Eskaintza honek Penintsulako, Balaerretako, Maltako eta Andorrako Kia kontzesionarioen sarea bali du. Kia berme eskuliburu kontsultatu.
** MSI datuak Penintsula eta Balaer Uharteetan, kanai partikularre turismoetan eta 4x4 urarrila eta abuztua artean 2022.





Dibujo Udal Eskola

margoeskola@eibar.eus

kultura@eibar.eus

943 708435

2022-23 ikasturterako

MATRIKULAZIO EPEA ZABALIK

